



Flamasats Agoitzen ezarri da, eta 25 milioitik gorako hasierako inbertsioa egingen du

Flamasats CLIPPER Nafarroara etorriko da, eta pizgailu-fabrika berri bat ezarriko du Agoitzen, Siemens Gamesaren lursaila eta instalazioak erosituta. Hala jakinarazi zieten Nafarroako presidenteari, Flamasatseko Presidente Exekutiboa Xavier Puigek, haren CEOa Pedro Puigek eta haren VP Finance & Operations Jorge Muñozek, Nafarroako Jauregian egindako bilera instituzional batean.

Flamasats Nafarroan ezartzeak 25 milioi euroko inbertsioa ekarriko du lehen fasean, eta 40 milioira arte handituko litzateke, eskariaren bilakaeraren arabera. 2023an, enpresaren produkzio beharretara bideratuko da inbertsio ahalgina; horretarako, instalazioak produkzio-behar espezifikoetara egokiko dira eta produkzio-kate

automatikoekin eta beste ekoizpen-elementu batzuk ezarriko dira. CBREk higiezinena izan da salerosketako aholkularia.

Era berean, eta instalazioak egokitze fasea amaitutakoan, 175 eta 250 pertsona artean kontratatuko direnen aurikuspena dago, eta horiekin zuzeneko eta zeharkako eskulan kualifikatuaren beharrak beteko dira.

Xavier Puigek adierazitakoaren arabera, "operazioa azkar itxi ahal izan da Agoizko Udalaren eta SODENAREN arteko lankidetzagatik eta Foru Gobernuak emandako erabateko laguntzagatik. Garbi ikusi da instituzioen arteko elkarlana garapen ekonomiko eta sozialaren mesedean. Operazio hau horren adibidea da".

Bileran Mikel Irujo Garapen Ekonomiko eta Enpresariako departamentuburuak eta Ángel Martín Unzue Agoizko alkateak parte hartu zuten. Irujok eskerrak eman zizkien aldeei emandako laguntzagatik eta egindako lan diskretuagatik, eta oso positibotzat jo zuen albisteak. Albiste bikaina da Agoitzen enpresa-jarduera berri bat ezartzea, enplegua sortuko delako eta eskualdearen garapena bultzatuko delako.

AGOITZERA BISITA. Flamasatseko Finantza eta Eragiketeko presidentek, CEOak eta VPak Agoitzen erositako instalazioak bisitatu zituzten, alkateak eta Juan Pablo Itoiz Industriako zinegotziaren eskutik, eta ondoan izan zituzten Irujo sailburua, Izaskun Goñi Enpresa Politikako, Nazioar-



AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA



AGOITZ JASANGARRIA
AOIZ SOSTENIBLE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



tektzeko eta Laneko zuzendari nagusia, Guillermo Alonso Sodenako Inbertsioak Erakartzeko Arloko arduraduna eta Amaya Manrique Sodenako Proiektuen kudeatzailea. Instalazioek 33.000 m² nabe eta bulego baino gehiago dituzte 88.000 m² baino gehiagoko lurzati batean.

Ángel Martín Unzuék pozik agertu zen erabaki honengatik eta Udala planta berria ezartzeko prest dagoela adierazi zuen. Agoitzen

ustez, zalantzarik gabe, enpresa horren etorrerak bultzada handia ematen dio tokiko jarduerari. Hau oso berri ona da udal honen eta Nafarroako Gobernuaren artean egindako lanaren ondorioz, batez ere Sodena garapenerako erakunde publikoari. Agoizko eta eskualdeko bizilagunek etorkizun oparagoa ikusten dute Flamasats iritsi ondoren.

FLAMASATS BURUZ. Flamasats 1.100 langile baino gehiagoko

familia-taldea da, eta bi negozio-lerro nagusi ditu bere sektoreetan: eskola-papergintza, ALPINO, MANLEY eta DACS markekin, eta CLIPPER markako pizgailuak, munduko bigarren player marka, urtean 500 milioi unitate salduta. Agoizko lantegi berriari esker, azken urteetan lortu diren salmenten hazkunde-planekin jarraituko da, eta, horrela, konpainiak mundu osoan duen seigarren produkzio-zentroa izanen da.



‘Reciclón’ maskoten txapelketa

Nafarroako 31 ikastetxe publikok, horien artean Agoizko San Migel HLHIK, eta kontzertatuek izena eman dute Diario de Noticias-ek Nafarroako Hondakinen Partzuegoarekin elkarlanean antolatzen duen Ikasgelako Maskota Birziklatuen I. Lehiaketan.

Ikasgeletan ingurumen-kontzientziari balioak sustatzen dituen ekimen dibertigarri honek 120 maskota baino gehiago izanen ditu lehen edizio honetan, birziklatutako materialarekin eginak kategoria desberdinetan.

Lehiaketa honen helburua da “haurrek ikastea etxean ditugun eta zaborretan bukatuko zuten materialak birziklatuz betiko jositailuak egin ditzakegula, bai eta

maskotak ere, geletako protagonista bihurtzeko”, Hondakinen Prebentziorako Nafarroako Bulegoak adierazi duenez.

Era berean, gaineratu dute “taldean lan egiten ikasteko modu entretenigarria eta ludikoa dela eta, aldi berean, gure lurraldeari

buruzko ingurumen-kontzientziarioa areagotzen dela”.

Ikastetxeek lehen edizio honetan adierazi duten interesak agerian uzten du hezkuntza ingurumen-gaietan sentsibilizatzeari eta gure ingurunearen jasangarritasunaren alde dagoela.



Cederna-Garalurren urteko balantzea

Urtarrilaren 18an, Cederna-Garalur Garapen Agentziaren urteko jarraipen-bilera egin zen, 2022ko balantzeari eta 2023ko lan-ildoei buruzkoa.

Bertan, abian dauden eta etorkizunean izango diren landa-garapenerako programen inguruan egindako jarduerak azaldu ziren, baita COVIDaren krisiaren ondorioz ireki diren eta zuzenean edo zeharka gure herrian etorkizun hurbilean eragina izanen duten Europako suspertze-programa berriak ere.

Bereziki garatu zen balantzean gure herriko enpleguari eta negozio-ekintzaileei laguntzeari buruzko kapitulua.

Pirinioaurreko eskualdeko biztanle eskasiaren egoera aztertu zen (8,5 biz./km²), 2018. urteetik aurrera hobera egin duen arren. Horrez gain, gure udalerriak, eskualde-burua, izan duen hazkunde handia ere aztertu zen. 101 biztanle gehiago ditu (+%3,5; Nafarroan, aldiz, % 0,4).

Enpleguari dagokionez, Pirinioaurrean azken urteetan enpleguak izan duen joera positiboa azaldu zen, langabezia-tasa -%3,4 jaitsi baitzen; Agoitzen kasuan, enplegu-bulegoetan izena emandako 7 langabe gutxiago izan ziren. Langabeziaren jaitsiera horrek portaera hobea izan zuen Nafarroako gainerako lurraldeetan baino, -2,6koa izan baitzen. Gainera, Pirinioaurreko eskualdeko langabezia tasa eskualdeburu izatearekin lotzen da, izan ere, Pirinioaurreko langabezia % 56 Agoitzen bizi da, baina, aldiz, udalerri horretan inguruko biztanleriaren % 38 baino ez dago. Gaur



egun, Agoitzen langabezia-tasa % 11,6koa da, aurreko urtean baino zertxobait hobea (% 12,1), baina Nafarroakoa baino askoz ere handiagoa (% 7,4), eta atzeritarren langabezia % 22,5ekoa da. 2021ean, Pirinioaurreko herri horretan artatu eta sortu ziren ekintzailetza-proiektu gehien (% 47), eta langabeentzako eta enpresentzako prestakuntza ikastaro eta tailer ugari eraman ziren.

Ekonomia arlo guztiak aztertu ziren, eta bereziki garatu zen industriakoa, hain zuzen ere Agoitzera industria erakartzeko abian jarritako ekintzak, besteak beste: Madergia industrialdeko lurzoruan instalatuko da; Gamesaren pabilioietan beste enpresa jarduera berri bat instalatuko dela uste da; turismoa eta zerbitzuekin lotutakoak; ingurumenarekin zerikusia dutenak (klimaren, energia aurreztearen, ekonomia zirkularren eta 2030eko agenden aldeko alkatetza-ituna); kultura-ondarearen arlokoak; eta proiektu emblemikoak, hots, Iratiko Naturbidea (2022an hasi ziren berreskuratze

lanak, eta 2025ean bukatuko direneko aurrakuspena dago), Bicimugi-Eurovelo 3 proiektua (2022an exekutatu da), Pirinioaurreko eta Zangozaldeko Turismo Kudeaketako Unitatea sortzea (4,7M €-ko aurrekontua onartua du, 2023 eta 2025 artean gauzatzekoa), Solano izandako instalazio zaharretan enpresa eta ekintzaileentzako habia-ontziak sortzeko proiektua (2023an jarriko dira martxan), dauden enpresa-mintegiak (guztiak emakume ekintzaileek okupatuak), Landa Merkataritzako Zerbitzuen Sarea sortzea, Itoizko urtegiaren ondoriozko ekintzak, Ekaiko Zerrategia auzoa berreskuratzea eta 2023-2027 Europako laguntzen programazio-aldi berria, besteak beste.



Hezkuntzak Pirinioetako ikasleentzako Irunberrin eginen den institutuaren proiektua lizitatu du

Irunberriko ikasle-egoitza zaharra Pirinioetako eta eskualdeko ikasleentzako etorkizuneko Batxilergoko institutu bihurtuko da, eta dagoeneko Hezkuntza Departamentuak Irunberriko IParen eraikina eraberritzeko proiektu arkitektonikoaren lizitazioa argitaratu du. Institutu berria Pirinioetako, Agoizko, Zangozako, Nabaskozeko eta Irunberriko ikasleei zuzendutako Batxilergoko ikasketak ezarriko dira.

Proposamenak aurkezteko epea datorren otsailaren 6an (astelehena) amaituko da, eta 179.631,03 euroko aurrekontua izanen du gehienez, proiektua idazteko (117.522,23 euro) eta obren zuzendaritza fakultatiborako (62.108,80 euro). Egoitza izeneko eraikinaren erabateko birmoldaketa integrala eraikuntza jasangarriko estandarrei jarraikiz eginen da, Hezkuntza Departamentua egiten ari den bezala. Esku-hartzea guztira 2.500 m²-ko azalera eginen da, eta hari esker aukera medalitate hauek ezarri ahalko dira: Zientziak eta

Teknologia eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak modalitateak ezartzeko (lehen eta bigarren solairuetan), eta gaur egun IIP Irunberrin egiten ari diren lanbide Heziketako ziklotarako espazioak egokituko dira (erdi-sotoko eta beheko solairuak).

Proiektua idazteko epea hirurogei egunekoa izanen da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik konstatzen hasita, esleipen-prozesua amaitu ondoren. Proiektua idatzi ondoren, Hezkuntza Departamentuak eraikina eraberritzeko obrak

lizitatu eta gauzatuko ditu.

Proiektuaren garapenarekin aurrera egiten da, halaber, Nafarroako Gobernuak EH Bildurekin 2022ko ekitaldirako lortutako aurrekontu-akordioa betetzeko bidean. Akordio horretan, Batxilergoa Pirinioetan ezartzeko proiektuari eman beharreko bultzada jasotzen da.

Horrela, eskualde, herri eta bailara horiek sarituta ikusten dute 2024-25 ikasturtean egia izanen den zentro berriaren aurkako borroka.



Iracheren kontsumitzaileentzako zerbitzu egunak

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak hileroko azken asteazkenean Agoizko Udalaren bulegoetan herritarren eskaerei erantzuteko eman ohi duen zerbitzuak otsailaren 22a eta martxoaren 22a ezarri ditu herritarrei aholkuak emateko hurrengo data gisa. Zerbitzua udal etxean eskaintzen da, 10:00etatik 13:00etara, eta hori erabili ahal izateko, aldeztatik hitzordua eskatu behar da 948 33 60 05 udal telefonoan. Gogoratzen dugu

Irache Kontsumitzaileek Agoizko Udalarekin lankidetzan eskaintzen duten zerbitzu hau doakoa dela interesdun guztientzat. Bertan, kontsumitzeko eskubidearekin zerikusia duten gai guztiak aholkatzen eta defendatzen dituzte, eguneroko bizitzan hurbilen daudenak: etxebizitza, bizilagunen komunitateak, aseguruak, ibilgailuak, finantza-erakundeak, merkataritza, telefonoa eta internet, osasuna, bidaiak, zerbitzu teknikoak, argia, ura, gasa, isunak, administrazioa, azterlan elektronikoak.



Agoizko osasun eskualdeak ibilgailu berria du

Osasun Departamentuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (OSN-O) bidez, 1.298.654 euro (BEZa barne) erabiliko ditu, kontratuaren bost urteetan zehar, 48 ibilgailu alokatzeko (renting), landa-eremuko larrialdiko eta larrialdietako osasun-egoerei laguntzeko.

Ibilgailu horiek, batez ere, Lehen Mailako Arretako profesionalen mugikortasunerako erabiltzen dira, hainbat beharizani erantzuteko, batez ere, trafiko-istripuei, lan-istripuei, bihotz-biriketako geldialdiei, erasoei eta 112-SOS Nafarroa zerbitzuaren bidez eskatzen diren

beste batzuei. Kasu horietan, osasun-langileak egon behar dira eta oinarritzko zentrotik gertakariaren lekura joan behar dute.

Ibilgailuak urtarilaren 1ean entregatu ziren, eta horietako bat Agoizko osasun-barrutiko flota-erentzako izan zen.



Zalurribarko San Salbatoren aurkitutako arkeologia aztarnen azterketa

Hidea Elkartearen (Agoizko Historia Kultur Elkartea) lokaletan Aranzadi Zientzia Elkarteko Josu Narbarte zuzendutako tailer bat eman zen. Tailer horretan, San Salbatore ermitan egindako indusketa arkeologikoan aurkitutako hondakin guztiak garbitu, sailkatu, siglatu eta inbentariatu ziren.

100 pieza baino gehiago aurkitu ziren, eta gehienak zeramika-hondarrak dira, baita landutako harri, hezur eta pieza metalikoren bat ere (txanpon bat eta mahastiak inautesteko tresna baten zati bat). Piezak garbitu ondoren, klasifikatu ziren beren materialaren

eta adinaren arabera (Erdi Arokoak eta ondorengoak). Zeramikaren kasuan hautematen ahal zen, besteak beste, fabrikazioan erabiltako ore mota, esmaltazioa (barrukoa edo kanpokoa), tornuetako markak edo ontzi berekoa izatea.

Ondoren, siglatu egin zen, laka-geruza txiki baten gainean sigla zuzen bat jarrita. Pieza guztiak geruza berekoak dira, eta, beraz, siglan Indusketa Unitate bera eta erregistro-zenbaki korrelatibo bat adierazi ziren. Datu horiek, pieza bakoitzaren deskribapen txiki batekin batera, dagokion inbentarioan sartu ziren. Prozesu osoa

hainbat argazkirekin dokumentatuta geratu zen.

Gogoan izan behar dugu Zalurribarko San Salbatore ermita zaharra zegoen espazioan egindako esku-hartze arkeologikoaren lehen fasea aztarnategia garbitzea eta mugatzea izan zela. Ondoren, bigarren etapan, hainbat lagin ireki ziren estratigrafia dokumentatzeko.

Hidea taldeak eskerrak eman dizkio Josuri jarritako interesa eta emandako laguntzagatik, baita arkeologia-lan eta -faseetan parte hartu duten boluntario guztiei ere.



Kultur balantzea

Errege Magoen kabalgatarekin bukatu zen Eguberrietako ekitaldien egitaraua. Hori amaitutakoan, urtarileko ohiko kultur ekitaldien programazioa hasi zen.

Socorro Latasa Miranda idazle agoizkoak Azar y tiempo bere azken literatur lana aurkeztu zuen Kultur Etxean. Hainbat leku, irakurketa, bizipen eta oroitzapenetan bi osagai horiek uztartzen dituen poesia-lana da. Obra hori da hogeita hamar argitalpen eta obra kolektibotan baino gehiagotan parte hartu duen poetaren hamaigarren obra indibiduala.

Disney Channelek emititzen duen "Houdini klub"eko aztiak "La magia de Houdini" (Houdiniren

magia) aurkeztu zigun. Enigme-kin, agerpenekin, desagertzeekin eta ur-tankearen ihesaren zenbaki liluragarriarekin ilusionatzea lortu zuen ikuskizun harrigarria.

Liburutegian, 'Saharako Kabiak-Nidos del Sahara' proiektuaren barruan, "Bubisher. Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetako liburutegieak" erakusketa bat egon zen. Horretaz gain, Kabiak egiten duen lanari buruzko hitzaldia eman zen eta haurrentzako kamishibai saio bat egin zen.

Agoizko Kultur Etxean egindako jardunaldi batean, Nafarroako Kutxa Fundazioak eta la Caixa Fundazioak elkarlanean sustatutako 2022ko Tokiko Berrikuntza progra-

maren proiektu onuradunen berri eman zen. 8.000 biztanletik beherako udalerrietatik bideratutako ekimenei laguntzeko deialdian 77 proiektuk parte hartu dute, eta horietatik 13 aukeratu ziren.

Kolectivo Monstrenko antzerki konpainia etorri zen gure herrira, Espejismos (El lado épico) lana eskaintzera. Umore absurduko sorkuntza artistikoa da, giro surrealista batean garatutakoa eta zuzeneko musikarekin.

Euskaraz aritzeko Mintzakide programaren barnean, pasa den urtarilaren 15ean, Txaro Minaren eskutik, ibilaldi gidatua egin zen Irati ibaiko landaredia eta herrian dauden zuhaitz monumentalak ezagutzeko.



Euskararen irakaskuntzaren Sustapena

"Regálales el euskera y llegarán muy alto / Euskararekin, gora eta gora beti!" lemapean, haurren artean euskarazko irakaskuntza bultzatzeko kanpaina abiatu zen, seme-alaba adingabeak dituzten nafar familiei zuzendua. Ekimenak hizkuntza zerbait positibo eta aberasgarritzat aurkezten du, horren aldeko testuinguru bat sortu ahal izateko, baliabide baliotsu gisa ikus dadin. Aurkezpenean euskararen balioa defendatu zen, bai nafar jatorriko biztanleentzat, bai beste toki batzuetatik datozen pertsona eta familientzat, zeren eta, hiz-

kuntzek batu egiten baitute, eta euskarak gizarte gisa dugun balioa biderkatzen baitu.

Kanpaina Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregik aurkeztu zuten, eta Euskararen Foru Legeak ezarritako babes eta sustapen aginduen markoan egin da; halaber, jarraipena ematen dio 2021ean herritarrak sensibilizatzeko hasitako komunikazio-ildoari, euskara aukera iturri gisa hartuta.

